

BALOREZKO PROPOSAMENA:

Aldaketa klimatikoa eta gure planetaren egoera asaldagarria da. Arazo honen errudunetarikoa bat plastikoaren gehiegizko kontsumoa da. Honen arrazoi nagusia plastikoa biodegradagarria ez dela da.

Horrek ingurumenean inpaktu kaltegarria dakartza eta horrexegatik produktu hau proposatu dugu:

Boligrafoaren karkasa plastikokoa izan beharrean banbuz egina izango da. Material hau erabiltzea erabaki dugu arrazoi hauengatik:

- Biodegradagarria da,
- Ez ditu zainketa askorik behar
- Oso arin hazten da,
- Beste landare batzuekin alderatuta %30 oxigeno gehiago sortzen du eta arina eta hauskaitza da.

Datu hauek kontutan hartuta ulergarria da banbuak plastikoa ordezkatzeko. Gure produktua ingurumenean oso lagungarria izango da eta gure planetaren egoeraren garrantzia adieraziko du.



Gure enpresak beste enpresekin alderatuta hainbat desberdintasun ditu eta horrek gure enpresaren indarrak adierazten ditu:

- Boligrafoaren prezioa gora egingo luke baina ez lirateke karkasa berriak erosi behar tinta aldakorrak edukiko baititu.
- Plastikoa banbua baino merkeagoa da baina aldi berean kutsakorragoa da.
- Bi boligrafo mota salduko ditugu baina biak banbuz eginda: bata normala izango da eta beste zuhaitz bat izango du zizelkatuta. Azken hau garestiagoa izango da baina bestearekin dagoen prezio aldean GKE batera emango dugu. Horrela ingurumenean askoz inpaktu positiboagoa egingo dugu.
- Karkasaren diseinua originala eta paregabea da. Karkasaren ebaketa zehatza eta dotorea da. Tapoiari dagokionez, banbuz egindakoa izango da ere. Hau da, gure boligrafoak ez du plastikoko gramo bat ere izango.
- Gure enpresaren xedea plastiko kontsumoa murriztea da gure planetaren egoera kezkatzeko. Hau lortzeko, enpresek gurekiko konfiantza maila garrantzitsua eta harreman estua bat hartzea oinarritzat dugu.

